



IKASGELA IREKIAK

NUPeko Genero

Ikasketen eta Ikasketa

Feministen Katedra

MARÍA DEL CARMEN PEÑARANDA

GIZARTE LANEKO IRAKASLEA MADRILGO UNIBERTSITATE
KONPLUTENTSEAN

**“Indarkeria instituzionala eta Gurasoen Alienazio
Síndrome faltsua indarkeria matxistagatik eta aitaren
sexu-indarkeriagatik jarritako salaketetan”**



2026ko otsailaren 19an
16:00etatik 20:00etara,
NUPeko 206. ikasgelan
Sarrera librea



UNAVARRA.ES/CATEDRA-GENERO

ANTOLATZAILEAK:

DIRULAGUNTZA EMAN DUTEN ENTITATEAK:

SAIOAREN EDUKIA

Saio honetan, “Violencia institucional contra las madres y la infancia. Aplicación del falso síndrome de alienación parental en España” (Ávila et al., 2022) izeneko ikerlan soziojuridikoaren emaitza nagusiak landuko dira, aditzera ematearren haurren eta amen aurkako diskriminazioak egiturazko eredu bat duela, genero ikuspegirik gabeko eta ikuspegi intersektionalik eta eskubiderik gabeko epailetzan oinarritzen dena eta ebazpen judizialen oinarri gisa aurreiritziak, sinesmen faltsuak eta genero estereotipoak erabiltzea ekartzen duena.

Zehazki, Gurasoen Alienazio Sindromea nola azaltzen den eta nolako funtzionamendua duen azalduko da. Sindromea, berez, konstruktuko psikojuridiko bat da, eta, oro har, seme-alaben zaintzaren inguruko eztabaida judizialean azaltzen da, hain zuzen ere aitak indarkeria matxistagatik edo haurren, nerabeen eta amen aurkako sexu-indarkeriagatik salaketa jaso eta gerora. Konstruktuko horren arabera, haurrek guraso batekiko (normalean aitarekiko) arbuioa adierazten dutenean, arbuio hori beste gurasoarengandik (normalean amarengandik) sufritu duten alienazioak eta instrumentalizazioak eragin du.

Generoari, haurtzaroari eta familiari buruzko estereotipoetan oinarritzen da sindromea, eta haurren, nerabeen eta amen testigantzei buruzko susmoa sorrarazten du. Behin agertzen denean, interpretazio esparru gisa eratzen da, bai salaketa penalean “sinesgarritasuna aztertze”ko, bai prozesu zibiletan “guraso-eskumenak aztertze”ko. Sindromeak babes zientifikorik ez duen arren, eta osasun zientziek (medikuntzak, psikiatriak, psikologiak) eta eremu judizialak eta zuzenbidekoak (adibidez, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrian Osorik Babesteko Lege Organikoa, eta autonomietako bestelako legeak) irmoki ezeztatu duten arren, bai Estatuan, bai nazioartean, konstruktuko psikojuridiko hori jurisdikzio zibilean eta penalean murgildu da, hura erabiltzen jarraitzen duten profesionalen eskutik: operadore juridikoak, talde psikosozialak, familiartekoen elkarguneak, gizarte zerbitzuak eta haurren arretarako zerbitzuak.

Modu horretan, ikerlanak zenbait ekintzak eta ez-egite identifikatzen ditu, sindrome faltsua aplikatzearen ondorioz sortuak eta Estatuko organismo publikoek gauzatuak. Horrela, ikerlanak erakusten du ekintza edo ez-egite horiek diskriminazioa eta babesgabetasuna eragiten dutela emakume, haur eta nerabeengan, eta, halaber, oztopoak ekartzen dizkietela beren eskubideak gauzatu edo haietaz baliatzeko. Hortaz, ekintza edo ez-egite horiek indarkeria instituzionaleko egintzat hartzen ahal dira.

ANTOLATZAILEAK:

DIRULAGUNTZA EMAN DUTEN ENTITATEAK:



MARÍA DEL CARMEN PEÑARANDA CÓLERA

María del Carmen Peñaranda Cólera Gizarte Lanean diplomaduna da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Psikologian lizentziatua eta Psikologia Sozialean doktorea Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. 2017tik, irakasle eta ikertzaile gisa dihardu Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Gizarte Laneko eta Gizarte Zerbitzuetako Sailean.

Bere ikerketa-lerroak honako hauei buruzkoak dira: indarkeria matxista, sexu-indarkeria, emakumeen eta haurren aurkako indarkeria instituzionala, ekintza komunitarioa, bizitegi arloko prekarietatea eta prekarietate horrek osasun psikosozialean duen eragina. Azken urteotan, emakumeen eta haurren babes sozialaren arloan lan egiten duten eragile juridikoen eta baliabide judizial eta sozialen jardunaren azterketan ardaztu du bere ikerketa, betiere genero-ikuspegi batetik.

Débora Ávila, Adela Franzé, Marta Pérez eta Patricia Gonzálezekin batera, “Violencia institucional contra las madres. Aplicación del falso síndrome de alienación parental (SAP)” ikerlana egin zuen, Berdintasunerako Ministerioaren Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak enkargatua eta sustatua.

Gaur egun, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Gizarte eta Kultura Politiken Antropologia Ikerketa Taldeko (APSyC) kide da, bai eta Bartzelonako Unibertsitateko Grup de Recerca en Interacció i Canvi Social (GRICS) taldeko kide ere.

ANTOLATZAILEAK:



Cátedra de estudios
de género y feministas
Genero ikasketen
eta ikasketa feministen katedra

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



DIRULAGUNTZA EMAN DUTEN ENTITATEAK: